



# **Marka bat**, tresna bat, etorkizun bat

***Una marca, una herramienta, un futuro***




# Marka bat etorkizunerantz

Duela 30 urte eguneratu zen azkenekoz Arrasateko Udalaren marka. Ordutik, herria aldatu egin da: erronka berriei aurre egin die, lokalak eta globalak, eta komunitate gisa garatzen jarraitu du. Orain, garai berrien aurrean, marka berritzeko unea heldu dela iritzi dio Arrasateko Udalak, armari historikoaren osagarri izango dena.

Baina marka eguneratzea ez da estetika-ariketa hutsa. Aitzitik, hausnarketa kolektiborako aukera da funtsezko galderak jarriz mahai-gainean: Nolakoa da gaur egungo Arrasate? Zein balio partekatzen ditu herri bezala? Nola irudikatzen da etorkizunari begira? Herria osatzen duten katebegi guztien nortasun, kohesioa eta konexio elementua.

Galdera horiei erantzuteko profil ezberdinak arrasatearrekin elkarritzeta saioak egin

dira eta Udalatzarekin ere kontrastatu da lanketa. Dinamika parte hartzaile horietan herri nortasunaz galdetuta hainbat kontzeptu gako atera dira behin eta berriz: ateak, giltzak, bidegile eta langile izaera, pertenentziaren sentimendua, dragoiak eta Udalaitz bera.



**Nolakoa da gaur egungo  
Arrasate? Zein balio  
partekatzen ditu herri  
bezala? Nola irudikatzen da  
etorkizunera begira?**

## ATEAK ETA ARKUAK, MARKAREN OINARRI

Ateen eta arkuen iruditeriak bide aberatsa zabaldu du marka berriaren kontakizunerako, lelorako eta irudirako. Horrela sortu da “Arrasate: Ate berriak zabalduz” leloa.

Alde batetik, leloak, iraganeko aitzindari izaera gogora ekarri eta etorkizunera begira dagoen herri aldarte bat iradokitzen du.

Halaber, belaunaldi, jatorri eta arlo ezberdinako arrasatearrak konektatzen ditu, aukera berrien inguruan.

Eta, horrez gain, herritarrei beren herriaren etorkizunean eragile izateko deia egiten die, protagonismo aktiboa aitortuz.

## BIDEARI EKIN DION MARKA

Pasa den maiatzaren 29an aurkeztu zen marka publikoki Seber Altube plazan egindako ekitaldian. Bertan, Arrasateko eragile ezberdinen hitzartzeak egon ziren, markaren kontakizun partekatuaren irakurketa musikatua egin zen eta alkateak marka berriaren nondik norakoak azaldu zituen.

## IRUDIA: BI ARKU, HAINBAT ESANAHI

Marka berriaren irudia, berriz, bi arku formek osatzen dute:

- Arrasateko arkitektura historikoa ekartzen dute gogora, herriaren sustraiak eta memoria.
- Irekiera, mugimendua eta inklusioa adierazten dituzte, gaur egungo Arrasateren izaera.
- Eta parte-hartzean oinarritutako herri aktiboa baten sinbolo bilakatzen dira.



**Herritarrei beren herriaren etorkizunean eragile izateko deia egiten die, protagonismo aktiboa aitortuz.**



# Una marca hacia el futuro

Han pasado 30 años desde la última vez que se actualizó la marca del Ayuntamiento de Arrasate. Desde entonces, el pueblo ha evolucionado: ha afrontado nuevos retos, globales y locales, y ha continuado desarrollándose como comunidad. Ahora, ante nuevos tiempos, el Ayuntamiento de Arrasate considera que ha llegado el momento de renovar su marca, que complementará al escudo histórico.

Sin embargo, actualizar la marca no es un mero ejercicio estético. Al contrario, representa una oportunidad para la reflexión colectiva, planteando preguntas fundamentales:

¿Cómo es actualmente Arrasate? ¿Qué valores compartimos como comunidad? ¿Cómo nos proyectamos hacia el futuro?

Para responder a estas preguntas, se han llevado a cabo sesiones de trabajo con perfiles diversos que componen la ciudadanía de Arrasate, y el proceso también se ha contrastado con el Pleno Municipal. En dichas dinámicas participativas para reflexionar sobre la identidad del pueblo se han repetido los siguientes conceptos clave: las puertas, las llaves, el carácter pionero y trabajador, el sentimiento de pertenencia, los dragones y el propio Udalaitz.

## LAS PUERTAS Y LOS ARCOS: LA BASE DE LA MARCA

Trabajando estas aportaciones, el imaginario de las puertas y los arcos ha abierto un camino potente para articular el relato, el lema y la imagen de la nueva marca. Así nació el lema:

**"Arrasate: Abriendo nuevas puertas".**

- Este lema evoca el carácter pionero del pasado y propone una actitud ilusionante hacia el futuro.
- Conecta a arrasatearras de distintas generaciones, procedencias y ámbitos, con el fin de crear nuevas oportunidades.
- Y lanza una invitación a la ciudadanía a convertirse en agente activo en la transformación del pueblo, reconociendo su protagonismo.



**¿Cómo es actualmente Arrasate?  
¿Qué valores compartimos  
como comunidad? ¿Cómo nos  
proyectamos hacia el futuro?**





### LA IMAGEN: DOS ARCOS, MÚLTIPLES SIGNIFICADOS

La nueva identidad visual se construye a partir de dos formas de arco que manifiestan varios significados:

- Remiten a la arquitectura histórica de Arrasate, evocando las raíces y la memoria colectiva.
- Representan apertura, movimiento e inclusión: rasgos clave del Arrasate actual.
- Y se convierten en símbolo de un pueblo activo y participativo, en constante transformación.



Lanza una invitación a la ciudadanía a convertirse en agente activo en la transformación del pueblo.

### UNA MARCA QUE HA COMENZADO SU ANDADURA

El pasado 29 de mayo se presentó públicamente la marca en un acto celebrado en la plaza Sebero Altube. En el evento intervinieron diferentes agentes sociales de Arrasate, se realizó una lectura musicalizada del relato compartido de la marca y la alcaldesa explicó los fundamentos y el recorrido de la nueva identidad.



# “Errelato konpartitu bat”, markaren oinarri: Ate berriak zabalduz

Arrasaten badakigu ateak zabaltzen, baita hormarik sendoenetan ere. Horrelako ateak zabaltzeko, lan asko egin behar da, eta Arrasaten badakigu lan egiten. Lantokietako lan horretan ere bai, baina elkarlana sustatzen dutenetan ere bai. Euskararen edota berdintasunaren aldeko lanetan esate baterako.

Gure historia aberatsean erakutsi dugu, lan egiteaz gainera, badakigula gozatzen aisialdiaz, lagunarteaz, musikaz, naturaz eta kirolaz. Badakigu suak eztitzen, eta dragoiak mantsotzen. Badakigu eskuzabalak izaten eta kanpotik datozeni ateak zabaltzen. Badakigu asmatu gabeko egiturak eraikitzen eta herriaren zerbitzura jartzen. Badakigu Mondragoe izaten, eta Arrasate bihurtzen. Badakigu beste herriekin eta munduko kideekin elkarlana sustatzen.

Harro egoteko moduko herri bat daukagu, eta itxurazko herri polit bat baino nahiago dugu barrutik bizigarria den herri ireki bat. Baditugu Portaloa eta bestelako ate historikoak, baina guretzat, batez ere, herritarrok harremanetan jartzeko pasabideak dira. Izan ere, Arrasate diogunean, ez baita toki bat aipatzen duguna, herritarrok osatzen dugun komunitatea baino.

Gure herria etxe bat izatea nahi dugu, eta teilatu bat jarri guztiak babesten dituena, eta hormak ere bai bertan gure egitasmo guztiak eraikitzeko (elkarreka, hezkuntza zentroak, kirol klubak, adinekoen egoitzak, establezimenduak, enpresak) era horretan, arrasatear haurren, gazteen, helduen eta adinekoen etorkizunari ate berriak zabaltzeko.

Arrasaten aitzindariak izan gara askotan, ez harrokeriagatik, herritarren ametsak gauzatzeko modu bakarra zelako baino. Eta beti taldean egin dugu, gure arbasoak burdina lantzen hasi zirenetik, kooperatiba eta ekimen berriak sortzen jarri ginen arte. Bihar ere egin beharko dugu, etengabe berrasmatu beharko baitugu gure herria, arrasatear diren eta izan nahi duten guztientzako ateak zabaltzeko.

Halaxe jarraitu nahi dugu Arrasaten, ate berriak zabalduz.

Marka berria definitzeko sortu den errelatoa da honakoa, irudi berriaren zergatia eta nortasuna azaltzen duena. Marka aurkezteko ekitaldian plazaratu zen. Ane Zuazubiskar, bertsolari eta komunikatzaileak irakurri zuen testua, Marta Eizagirre, Arrasate Musikaleko zuzendaria, pianoan lagun zuela.

# ***“Un relato compartido”, la base de la marca: Abriendo nuevas puertas***

En Arrasate, comprendemos el significado de “abrir nuevas puertas”. A veces, hay que abrirlas en los muros más sólidos. Abrir puertas así requiere un trabajo serio, y en Arrasate, sabemos mucho de trabajo. Tanto en los centros de trabajo como en proyectos colaborativos, como nuestro trabajo a favor del euskera o en defensa de la igualdad.

A lo largo de nuestra rica historia, hemos demostrado que no solo sabemos trabajar, sino que también sabemos disfrutar de la amistad, el tiempo libre, la música, la naturaleza y el deporte. Sabemos apagar fuegos y calmar a los dragones. Sabemos ser generosos y acoger a quienes vienen de fuera. Sabemos construir estructuras inimaginables y ponerlas al servicio de la comunidad. Sabemos cómo incorporar Mondragón en Arrasate e impulsar la colaboración con otros pueblos y personas del mundo.

Tenemos un pueblo del que podemos sentirnos orgullosas y orgullosos, y preferimos un pueblo abierto y habitable por dentro que uno bonito por fuera. Tenemos el Portalón y otras puertas históricas, pero para nosotros, más que puertas, son pasillos que conectan a las personas. Porque cuando decimos Arrasate, no hablamos solo de un lugar, sino de la comunidad que formamos quienes lo habitamos.

Nuestro pueblo debería ser como una casa, con un techo que cobije a sus habitantes y paredes sobre las que construir nuestros proyectos. Esto incluye asociaciones, centros educativos,

clubes deportivos, residencias de mayores, establecimientos y empresas. Al hacerlo, podemos abrir nuevas puertas al futuro de las niñas y niños, jóvenes, personas adultas y mayores de Arrasate.

En Arrasate, hemos sido pioneros en muchas ocasiones, no por arrogancia, sino porque era la única manera de hacer realidad los sueños de nuestra gente. Este enfoque colectivo se remonta a nuestros antepasados, que comenzaron a trabajar el hierro, y continuó con la creación de cooperativas e iniciativas innovadoras. Para garantizar un futuro próspero, debemos seguir adoptando este enfoque colectivo. Reinventar constantemente nuestro pueblo es esencial para abrir las puertas a todos los que residen en Arrasate y a aquellos que aspiran a hacerlo.

Esta es la visión que tenemos para Arrasate: un pueblo que abre nuevas puertas, que acoge nuevas oportunidades y caminos.

Este relato se presentó durante el acto de lanzamiento de la marca, con un texto leído por la bertsolari y comunicadora Ane Zuazubiskar, acompañada al piano por Marta Eizagirre, directora de Arrasate Musikal. Es el relato que define la nueva marca, capturando su esencia y su sentido, e inspirando la nueva imagen.

# Ate berriak zabalduz, eragileen ikuspuntutik

Markaren aurkezpen publikoan herriko eragileei galduen zitzaien beraien ustetan zer esanahi zuen “**ate berriak zabalduz**” leloak. Hemen dituzue beraien erantzunak:



## Ihabar Arriaran

Arrasate Rugby Taldeko kidea

### “Kirolak ate berriak zabaldu ahal dizkie gizarteko hainbat erronkari”

Kirola ulertzeko moduari ateak zabaltzea da. Kirola, guretzat, ez da kiroldegia batean egiten den zerbait, bizi eredu bat da. Batetik, garapen pertsonalerako espazio gisa ulertzen dugu kirola. Bestetik, baloreetan heztekoko espazio moduan ikusten dugu. Eta azkenik, komunitate bati ateak irekiko dizkion zerbait bezala ulertzen dugu. Gainera, kirolak ate berriak zabaldu ahal dizkiela uste dugu gizarteko hainbat erronkari: aniztasunari, euskarari, feminismoari eta baita beste hainbat erronkari ere.

*Se trata de abrir puertas a la manera en que entendemos el deporte. El deporte no es algo que se hace en un polideportivo: es una forma de vida. Por un lado, lo entendemos como un espacio para el desarrollo personal. Por otro lado, lo concebimos como un espacio para la educación en valores. Y, por último, como una vía para abrir las puertas a una comunidad. Además, creemos que el deporte puede abrir nuevas puertas frente a muchos de los retos que afronta la sociedad: la diversidad, el euskera, el feminismo y muchos otros.*



## **Idoia Peñacoba**

Mondragon Unibertsitateko Idazkari Nagusia

### **“Orain inoiz baino gehiago, ezagutzari atea irekitzen jarraitu behar dugu”**

Hezkuntza entitateek, kooperativak, enpresek zein mota guztiako elkarrekin, benetako atea ireki ditugu eta etorkizunean ere horretan jarraitu behar dugu. Ateak ireki dizkiogu: euskal prestatuak, guztiak hezkuntzari, gure lurraldeko konprometitutako profesionalei. Are gehiago, atea ireki diegu luzaroan itxita aurkitu dutenei: kanpotik etorritako pertsonai, baliabide gutxiko familieei, aukera bat behar zuten gazteei. Orain inoiz baino gehiago, ezagutzari atea irekitzen jarraitu behar dugu. Ausardiaz apustu egin ikerketaren alde; berrikuntzaren alde. Hor dago gure benetako indarra.

*Las entidades educativas, las cooperativas, las empresas, asociaciones de todo tipo... hemos abierto puertas de verdad, y en el futuro debemos continuar por el mismo camino. Hemos abierto las puertas a la formación en euskera, a una educación para todas las personas, a profesionales comprometidos con nuestra tierra. También hemos abierto la puerta a quienes durante mucho tiempo la encontraron cerrada: a personas recién llegadas, a familias con pocos recursos, a jóvenes que necesitaban una oportunidad. Ahora más que nunca, debemos seguir abriendo las puertas al conocimiento. Apostar con valentía por la investigación; por la innovación. Porque ahí reside nuestra verdadera fuerza.*



## Fuityy Mahamud

Saharar komunitateko kide

### **“Ate berriak zabaltzea da pertsona orori aukera eta errespetua eskaintza”**

Niretzat, aniztasunari ate berriak zabaltzea da aukera ematea elkar ezagutzeko, elkarrekin eraikitzeo eta elkarri lekua egitea. Aniztasun hori baloratzeko, ordea, ezinbestekoa da pertsona guztien Giza Eskubideak bermatzea: etxebizitza duina, hezkuntza, osasuna, aukera berdintasuna. Sahara eta Euskal Herria bi herri gara, bakoitzaz bere testuinguru historiko eta politikoarekin, baina biak ere nazio izaera aitortu gabe dituzten komunitateak. Testuinguru horretan, aniztasunean ate berriak zabaltzea esan nahi du baita ere elkar aitortzea eta errespetatzea. Beraz, niretzat, aniztasunari ate berriak zabaltzea da pertsona orori aukera eta errespetua eskaintza, jatorria edozein dela ere. Eta batez ere, elkarbizitzatik, elkartasunetik eta eskubideen defentsatik herri sendoago bat eraikitzea.

*Para mí, abrir nuevas puertas a la diversidad significa crear oportunidades para conocernos, construir juntas y hacernos sitio mutuamente. Pero para valorar esa diversidad, es imprescindible garantizar los Derechos Humanos de todas las personas: una vivienda digna, educación, salud, igualdad de oportunidades. El Sáhara y Euskal Herria somos dos pueblos, cada uno con su propio contexto histórico y político, pero ambos somos comunidades con una identidad nacional no reconocida. En ese contexto, abrir puertas a la diversidad implica también reconocernos y respetarnos mutuamente. Por eso, para mí, abrir nuevas puertas a la diversidad significa ofrecer oportunidades y respeto a todas las personas, sea cual sea su origen. Y, sobre todo, construir un pueblo más fuerte desde la convivencia, la solidaridad y la defensa de los derechos.*



## Maria Oses

Kulturgilea eta artista

### **“Arrasaten badakigu taldean lan egiten, eta uste dut hori kulturan ezinbesteko balioa dela”**

Arrasaten badakigu ateaek zabaltzen, baita kulturan ere. Hala ere, pentsatzen jarrita, zein datorkizue burua? Lepoa egingo nuke izenetako asko gizon musikarienak direla. Eta garrantzitsua da, nola ez, izen horiek buruan izatea, baina aurrera begira jarriko garen honetan, kulturaren ateetatik forma, neurri eta itxura guztiak pertsonei egin behar diegu leku. Zabal ditzagun atea eta leihoak tradizioak airea har dezan, eta bete ditzagun hormak eta oholtzak kultur adierazpen berriez: literaturaz, poesiaz, antzerkiz, komikiz, filmez, dantzaz, fanzinez, drag ikuskizunez, kabaretez, eta deskribatzen zailak diren adierazpen horiez. Arrasaten badakigu taldean lan egiten, eta uste dut hori kulturan ezinbesteko balioa dela.

*En Arrasate sabemos lo que es abrir puertas, también, en el ámbito de la cultura. Sin embargo, si nos paramos a pensar... ¿Qué nombres os vienen a la cabeza? Me atrevería a decir que muchos de ellos son hombres músicos. Y sí, es importante recordar esos nombres, claro que sí, pero si queremos mirar hacia adelante, debemos hacer sitio en las puertas de la cultura a personas de todas las formas, tamaños y expresiones. Abrimos puertas y ventanas para que la tradición respire aire nuevo, y llenemos paredes y escenarios con nuevas expresiones culturales: con literatura, poesía, teatro, cómic, cine, danza, fanzines, espectáculos drag, cabaret y esas otras expresiones difíciles de definir. En Arrasate sabemos trabajar en colectivo, y creo firmemente que ese es un valor imprescindible también en la cultura.*



## Eider Etxebarria

Bizipoz kooperatibaren sortzaileetako bat

### **“Gure bizipenetik hainbat ate zabaldu ditugu eta horietako asko Arrasaten izan dira”**

Oso txikitatik ezinbesteko da adin desberdinak pertsonekin egon, harremandu eta denbora eta espazioak partekatzea; generazio desberdinak bizipenak ulertu eta elkarbizitza sustatzeko. Arrasaten aisiaaldi, kultura eta mugimenduko hainbat espazio fisiko ditugu. Horiei ikuspegi intergenerazionala eman behar diegu harreman hauek sortu daitezen. Gure bizipenetik hainbat ate zabaldu ditugu eta horietako asko Arrasaten izan dira. 21 urterekin pertsona nagusien arloan lan egin nahi genuela adierazi eta proiektuak martxan jartzen saiatu ginen Euskal Herriko hainbat udaletxeen atea joz. Arrasateko Udalak bere atea zabaldu zizkizgun. Enpresei ere beraien rola aldatzeko proposamena egin genien, langileak jubilaziorako prestatzeko garrantziaz hitz egiten hasi ginen. Ate zailak izan ziren, baina horiek ere zabaldu genituen. Zortzi enpresei jubilaziorako trantsizioari garrantzia ematen lagundu diegu, horietatik lau Arrasatekoak dira.

*Desde muy pequeñas, es fundamental convivir, relacionarse y compartir tiempos y espacios con personas de diferentes edades; para comprender las vivencias de distintas generaciones y fomentar una convivencia real. En Arrasate contamos con diversos espacios físicos dedicados al ocio, la cultura y el movimiento, y es necesario dotarlos de una mirada intergeneracional para que esas relaciones puedan florecer. Desde nuestra propia experiencia, hemos abierto muchas puertas, y muchas de ellas han sido aquí, en Arrasate. Con 21 años expresamos nuestro deseo de trabajar en el ámbito de las personas mayores y llamamos a las puertas de varios ayuntamientos de Euskal Herria para poner en marcha nuestros proyectos. El Ayuntamiento de Arrasate nos abrió sus puertas. También nos dirigimos a las empresas, proponiéndoles un cambio de rol: empezamos a hablar sobre la importancia de preparar a sus trabajadoras y trabajadores para la jubilación. Fueron puertas difíciles de abrir, pero también logramos hacerlo. Hemos acompañado ya a ocho empresas en ese proceso de transición hacia la jubilación; cuatro de ellas están en Arrasate.*



**Maider Morras**

Arrasateko alkatea

# “Gure herri nortasuna indartzeko eta sustatzeko baliabidea izatea nahi dugu marka”

Maiatzaren 29ko aurkezpenean egon zen Maider Morras Arrasateko alkatea ere. Mugarri gisa deskribatu zuen berak marka, eta proiektu komun baten hasiera zela adierazi.

## **Marka berri baten sorrera, zergatik orain?**

Erantzuna argia da: momentua heldu da gure burua beste era batean aurkezteko, erakusteko zein garen, nondik gatozen eta nora joan nahi dugun. Eta guzti hau herritarrekin, elkarrekin egin nahi dugu. Marka hau ez da irudi bat. Ez da logo bat, kolore sorta bat edo kanpaina bat. Marka hau tresna bat da. Gure herri nortasuna indartzeko eta sustatzeko baliabidea izatea nahi dugu.

## **“Ate berriak zabalduz” da markaren leloa, zein da bere esnahaia?**

Gure ibilbidearen isphilu bat dela uste dut eta etorkizunari irekitako begirada ausart bat. Ateak

zabaltzea, ausardia eskatzen duen ekintza da, prestutasuna eta irekitasuna. Arrasatek badaki zer den ateak zabaltzea. Historia luze eta bizi baten jabe gara. Industria arotik digitalizazio garairra egindako jauzia ez da berez etorri.

Bidean hainbat ate itxi zaizkigu, bai, baina askoz gehiago ireki ditugu. Gure herriak erakutsi du berrasmatzeko gaitasuna duela, eta berrikuntzari ateak zabaltzen jakin duela.

## **Udalaren ikuspuntutik zer da ate berriak zabaltzea?**

Jarrera bat da, gobernantza ulertzeko modu bat. Herritarren eta eragileen ideiei ateak zabaltzea, proiektuak elkarlanean sortu eta garatzea. Berrikuntza soziala eta ekonomikoa, gure garapenaren motor gisa ulertzea, eta herriko bizi kalitatea hobetuz, Arrasate atsegina eta justuago bat egitea.

# ***“Queremos que la marca sea una herramienta para fortalecer y promover nuestra identidad como pueblo”***

En la presentación del 29 de mayo también estuvo presente Maider Morras, alcaldesa de Arrasate. Ella describió la marca como un hito y señaló que era el inicio de un proyecto común.

## **¿Por qué crear una nueva marca ahora?**

La respuesta es clara: ha llegado el momento de presentarnos de otra manera, de mostrar quiénes somos, de dónde venimos y hacia dónde queremos ir. Y todo esto queremos hacerlo con la ciudadanía. Esta marca no es solamente una imagen. No se trata de un logotipo, una gama de colores o una campaña. Esta marca es una herramienta. Queremos que sea un recurso para fortalecer y promover nuestra identidad como pueblo.

## **“Abriendo nuevas puertas” es el lema de la marca, ¿cuál es su significado?**

Creo que es un reflejo de nuestro recorrido como pueblo y una mirada valiente abierta al futuro. Abrir puertas es un acto que exige valentía, disposición y apertura. Arrasate sabe bien lo que significa abrir puertas. Somos herederas de una historia larga y vibrante. El salto desde la era industrial hasta la era de la digitalización no ha ocurrido por casualidad. En el camino, sí, algunas puertas se nos han cerrado, pero hemos sabido abrir muchas más. Nuestro pueblo ha



demostrado su capacidad de reinventarse y ha sabido abrir las puertas a la innovación.

## **¿Qué significa “abrir nuevas puertas” desde el punto de vista del Ayuntamiento?**

Es una actitud, una forma de entender la gobernanza. Significa abrir las puertas a las ideas de la ciudadanía y de los agentes locales, crear y desarrollar proyectos en colaboración. Significa entender la innovación social y económica como motor de nuestro desarrollo, y hacer de Arrasate un lugar más amable y más justo, mejorando la calidad de vida en el municipio.

Markaren aurkezpen ekitaldia ikusteko:  
Para ver la presentación pública de la marca:







**Arrasate**  
ATE BERRIAK ZABALDUZ

**Ate berriak zabaldu  
nahi dizkiogu  
elkarlanari.**

**Queremos abrir nuevas puertas  
a la colaboración.**

